

X Edición

# Mis Queridos Abuelos Nire Aitona-Amoña Maiteak

X. Edizioa

Concurso de dibujo  
Marrazki lehiaketa

**PARTE  
HARTZEKO  
OHINARRIAK**

  
**SOLERA**  
FUNDACIÓN

# PARTE HARTZEKO OHINARRIAK

## Fundazio antolatzailea

Nire aiton-amona maiteak marrazki-lehiaketaren antolaketa Solera Fundazioak sustatzen du, helbide soziala honako hau duena: Monasterio de Irache kalea 76 (31011 Irunea-Nafarroa) eta IFK: G71230882.

## Lehiaketako parte-hartzaileak

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute: Lehen Hezkuntzan ari diren haur guztiek (6 eta 12 urte bitartekoak), baldin eta aitak/amak edo legezko tutoreak berriazko baimena eman badute, lehiaketara aurkeztutako inprimakian jasota.

Ikastetxeen bidez parte hartuz gero, irakasleek, aldez aurretik aitak/amak edo legezko tutoreak inprimakian emandako baimena jaso ondoren, ikasleak kategoria hauetako batean inskribatuko dituzte: 6 urteko kategoria Lehen Hezkuntzako 1. mailari dagokio; 7 urtekoa, 2. mailari; 8 urtekoa, 3. mailari; 9 urtekoa, 4. mailari; 10 urtekoa, 5. mailari; eta 11 urtekoa, 6. mailari, parte-hartzaileak duen adina edozein dela ere.

## Lehiaketaren iraupena

Marrazkiak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 1ean hasiko da, 00:00etan (Espainiako ordua), eta 2026ko maiatzaren 4an amaituko da, 23:59an. 2026ko maiatzaren 19tik 31ra bitartean, irabazleen zerrenda argitaratuko da [www.soleraasistencial.es](http://www.soleraasistencial.es) webgunean, eta dagokien sari-banaketa ekitaldirako jakinarazpena eta deialdia egingo zaie.

Lehiaketaren antolakuntzak eskubidea izango du irabazleak sari-banaketa ekitaldian egokien iritzitako moduan banatzeko, lehiaketaren garapen egokia bermatzeko.

## Paperezko inprimakia eskuratzeko zentroak

Lehiaketan parte hartzeko plantillak honako leku hauetan eskuratu ahal izango dira:

### SOLERA ZENTROAK:

- ZENTROA SOLERA ENCASA: C/del Monte Monjardín 14, Pamplona
- ADINEKOEN EGOITZA SOLERA LA VAGUADA: C/Monasterio de Irache 76, San Juan, Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA LA VAGUADA: C/Monasterio de Irache 76, San Juan, Pamplona (Entrada del Centro de Día).
- ADINEKOEN EGOITZA SOLERA URBAN: C/Irunlarrea 39, Mendebaldea. Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA ENSANCHE II: C/ Padre Calatayud 6, Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA PÍO XII: C/Padre Tomás Esteban 10 bajo, Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA VUELTA DEL CASTILLO: Travesía Vuelta del Castillo 1, Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA TXANTREA-EZKABA: C/Canal 23, Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA ANSOÁIN: C/Loza 7, Ansoáin
- SENIOR ZENTROA SOLERA MONJARDÍN: C/ del Monte Monjardín 16, Pamplona
- SENIOR ZENTROA SOLERA NOAIN: Av. la Lostra 31, Noain
- SENIOR ZENTROA SOLERA LARRAGA: C/Cañada Real 4, Larraga
- SENIOR ZENTROA SOLERA FONTELLAS: Pza. de los Fueros 10, Fontellas

- ADINEKOEN EGOITZA TORRE MONREAL: C/Torre Monreal 13, Tudela
  - SENIOR ZENTROA SOLERA TORRE MONREAL: C/Torre Monreal 13, Tudela
  - SENIOR ZENTROA SOLERA RIBAFORADA: Plaza San Francisco Javier s/n, Ribaforada
  - SOLERA SUITES: Av. del Barrio 46, Tudela
  - SENIOR ZENTROA SOLERA ACEDO: Carretera de los Arcos 14, Acedo
  - SENIOR ZENTROA SOLERA CADREITA: Pl. Ayuntamiento, 5, Planta Baja, 31515 Cadreita
- \*Zentro guztietan plantilla paperez izango duzue, edo pdfa deskargatzen lagunduko zaitugu.

Platillak online descargatu ahal daiteke pdfan [www.soleraasistencial.es](http://www.soleraasistencial.es) webgunean edo lehiaketan parte hartzen duten ikastetxeetan eskatuz.

### Zehaztapen zehatzak

- Marrazkien sailkapena: Sei kategoria daude parte hartzen duten haurren ikasturtearen arabera: Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara.
- Formatua: Marrazki guztiak Nire Aitona-amona Maiteak lehiaketaren X. ediziorako marrazki-plantilla ofizialean egin beharko dira. Ez dira onartuko ofizialak ez diren orrietan egindako marrazkiak.
- Datuen betetzea: Lehiaketara aurkezten diren marrazki guztiek argi eta garbi, letra ulergarrian edo ordenagailuz idatzita, plantillaren atzealdean agertzen diren “parte hartzeko beharrezko datu” guztiak bete beharko dituzte.
- Marrazkiaren gaia: Zure aitona-amonei eskainitako marrazki bat edo haiekin egin nahiko zenituzkeen planak. Ez dira onartuko marrazki bortitzak, sexualak, arrazistak, sexistak edo edozein motatako marrazki iraingarriak.
- Margotzeko materialak: Parte-hartzaileak nahi duen margotzeko materiala erabili ahal izango du (koloretako arkatzak, argizariak, akuarelak, tenperak, etab.), baita A4 formatuan plantillak eskaneatzea ahalbidetzen duen edozein material sortzaile ere.
- Dedikatoria: Parte-hartzaileek testu laburrak idatzi ahal izango dituzte edozein hizkuntzatan, marrazkia beren aitona-amonei eskainiz.

### Marrazkien aurkezpena

Marrazkiak entregatzeko azken eguna 2026ko maiatzaren 3a, 23:59 izango da. Parte-hartzaile bakoitzak marrazkia honako modu hauetako batean aurkeztu ahal izango du:

- Solerako edozein zentroetan (ikusi “Plantilla eskuratzeko zentroak” atala).
    - Posta elektronikoko bidez, [comunicacion@soleraasistencial.es](mailto:comunicacion@soleraasistencial.es) helbidera, plantillaren bi aldeak dokumentu bakar batean PDF formatuan digitalizatuta.
    - [www.soleraasistencial.es](http://www.soleraasistencial.es) webguneko entrega-formularioaren bidez, marrazkia PDF formatuan erantsita eta eskatutako datuak betez.
    - Posta arrunt bidez, helbide honetara bidalita: C/ Monasterio de Irache 76, Beheko solairua, 31011 Iruña (Nafarroa), gutun-azalaren kanpoaldean argi eta garbi “MQA 2026” idatzita.
    - Parte hartzen duen ikastetxearen bidez.
    - La Morean Merkataritza Zentroan, 2026ko apirilaren 10ean eta 11n, Nire aiton-amona maiteak standekin egongo gara.
- Edonola ere, plantillaren atzealdean, letra irakurgarri, parte hartzeko eskatutako datu guztiak bete beharko dira, baita lehiaketan parte hartzeko eta bertako irudiak argitaratzeko dagokion baimena ere. Bestela, ezingo da lehiaketan parte hartu.

### Marrazki irabazleen irizpideak eta balorazioa

Banakako marrazkiak: Marrazkiaren osotasuneko originaltasuna, egindako lana, arauetara egokitzea eta aitona-amonei egindako dedikatoria baloratuko dira. Antolakuntzaren irizpideen arabera, balioengatik, sormenagatik eta maitasun-mezuengatik nabarmentzen diren lanak sarituko dira.

### Haur irabazleak

Marrazkiak jasotzeko epea amaitu ondoren, epaimahaiari azken hautaketa errazteko, Solera Fundazioko langileek 60 marrazkiren aurre-hautaketa egingo dute, kategoria bakoitzeko 10, originaltasuna, egindako lana eta arauetara egokitzea irizpidetzat hartuta. Era berean, 100 marrazkiren zozketa egingo da, eta horiek ere saria jasoko dute.

Ondoren, azken epaimahaia, Solera Asistencialeko zerbitzuetako adineko erabiltzaileek osatua, marrazki irabazleak aukeratuko ditu. 2026ko maiatzaren 19tik 31ra bitartean, kategoria bakoitzeko eta zozketaz aukeratutako irabazleak [www.soleraasistencial.es](http://www.soleraasistencial.es) webgunean argitaratuko dira, sari-banaketa ekitaldira deituta.

Irabazleak honako hauek izango dira:

- IRABAZLEAK: Kategoria bakoitzeko haur 1, guztira 6; “Sormena, balioak eta maitasun-mezuak” saria.
- IRABAZLEAK: Zozketaz aukeratutako 100 haur.
- IRABAZLEAK: haur bat Zozketa Berezi bat irabazi ahal izango du.

Irabazleei jakinarazpena emango zaie marrazkiaren plantillaren atzealdean adierazitako posta elektronikoaren bidez, lortutako saria azaldu eta banaketa baieztatzeko.

Gainera, maiatzaren 19tik aurrera, marrazkiak ikastetxeetara eramango dira, parte-hartzaile guztiek beren marrazkia ikastetxean jaso dezaten. Beste bide batzuen bidez parte hartu dutenek C/ Monasterio de Irache 76ko bulego nagusietan jaso ahal izango dute 2026ko uztailaren 31ra arte. Epe hori igarota, ezingo da marrazkia jaso. Maiatzak 19tik 31ra gure webgunean azalduko dtugu irabazleak: [ww.soleraasistencial.es](http://ww.soleraasistencial.es) orrialdean.

### Kategoria bakoitzeko irabazleen sariak\*

Kategoria bakoitzeko irabazleek, guztira 6 hurrek (kategoria bakoitzeko 1), honako sari hauek jasoko dituzte:

- Bere marrazkiarekin egindako kamiseta
- 20 €-ko diru-sarrera Rural Kutxako kontu batean
- Juguettosen jostailu saskia
- Osasuna edo Osasuna Fundazioaren baloi bat
- Zinemarako sarrera 1 - Golem La Morea
- Lacturale-ren kit bat

### Zozketaz aukeratutako irabazleen sariak\*

Zozketaren bidez aukeratutako 100 irabazleek honako sari hauek jasoko dituzte:

- 20 €-ko diru-sarrera Rural kutxako kontu batean
- Osasuna eta/edo Osasuna Fundazioaren jaietarako zapi bat
- Zinemarako sarrera 1 - Golem La Morea
- Lacturale-ren kit bat
- Juguettoseko baloi bat

## Zozketa Berezien sariak\*

Parte-hartzaile guztiek zozketa berezi batean parte hartuko dute, eta sari bat irabazi ahal izango dute:

- Ordenagailu eramangarri txiki bat
- Solera Fundazioaren 6 tablet (banakako zozketa)
- Rocópoliserako bi sarrera bikoitz (banakako zozketa)
- Juguetos La Moreako 100 baloi

\*\*\* Antolakuntzak sariak aldatzeko eskubidea izango du sari-banaketa egin arte, eta inola ere ezin izango dira beste sari batzuekin ordezkatu edo diruaren truke trukatu.

## Sari-banaketa

Irabazle hurrek “Nire Aitona-amona Maiteak” lehiaketako sariak jasoko dituzte, deialdi bidez jakinaraziko zaien sari-banaketa ekitaldian. Sari-banaketa 2026ko ekainaren 2tik 3ra bitartean egingo da, La Morea Merkataritza Zentroan.

Solera Fundazioa finalista bakoitzarekin harremanetan jarriko da, parte-hartzea baieztatzeko, eta data, ordu eta/edo lekua aldatzen bada jakinarazteko. Ekitaldira joan ezin dutenek sariak C/ Monasterio de Irache 76, Beheko Solairua, Iruna edo C/ Torre Monreal 13, Tudela helbideetan jaso ahal izango dituzte. Sariak jasotzeko azken eguna 2026ko uztailaren 31 izango da.

## Aurkeztutako marrazkien erakusketa

Kanpaina bitartean, kategoria bakoitzeko hautatutako marrazkiak digitalki erakutsiko dira [www.soleraasistencial.es](http://www.soleraasistencial.es) webgunean.

## Oinarriak onartzea

Solera Fundazioko “Nire Aitona-amona Maiteak” marrazki-lehiaketan parte hartzea, plantillak edozein puntu egokitan entregatzearekin, oinarri orokor hauek osorik eta erreserbarik gabe onartzea dakar, baita antolatzailearen irizpidearen menpe egotea, sortzen diren gai guztien ebazpenean eta oinarri hauen interpretazioetan hartzen diren erabakietan. Sari-banaketan parte hartzeak Seresgerna S.A, Solera Fundazioa eta Solera Asistencial-i baimena ematen die marrazki, bideo eta bestelako irudi guztiak erabiltzeko eta jabetza-eskubideak izateko, beharrezko medioetan zabaltzeko.

## Datu pertsonalen tratamendua

Solera Asistencial, Solera Fundazioa, Seresgerna S.A edo lehiaketan parte hartzen duen beste edozein zentro edo erakundeak biltzen dituen datu pertsonalak, Pamplonako Monasterio de Irache kalea, 76 helbidean duen fitxategi batean sartuko dira, lehiaketan parte-hartzea kudeatzeko eta, behar izanez gero, sariak banatzeko, baita Solera Asistencial Taldeak egingo dituen beste kanpaina posibleetan erabiltzeko ere. Haurren gurasoek eta/edo tutoreek onartzen dute beren datuak eta parte-hartzen duten haurren datuak tratatzea, eta bereziki baimentzen dute, lehiaketan aukeratu edo irabazle izan ezker, haien identifikazio-datuak webgunean eta/edo fitxategiaren titularrak lehiaketarekin lotuta egingo dituen argitalpenetan argitaratzea. Emandako datuekin lotuta, datuen titularrak edo haren ordezkariak sarrera-, zuzenketa-, ezeztatze- eta aurkako eskubideak gauza ditzake, Seresgerna S.A fitxategiaren arduradunari Monasterio de Irache kalea, 76, Pamplona helbidera edo [administracion@soleraasistencial.es](mailto:administracion@soleraasistencial.es) helbide elektronikora eskaera egin.

### **Jabetza intelektual**

Parte-hartzaileek Solera Fundazioari ematen dizkiote aurkeztutako lanen eskubideak, marrazkien erreprodukzio-eskubide ez-esklusiboa, mundu osorako baliagarria eta legeak ahalbidetzen duen gehieneko denborarako, betiere oinarri hauetan deskribatutako ekintzak gauzatzeko nahikoa izango den irismenarekin.

### **Aplikatzeko den legeria eta jurisdikzioa**

Lehiaketa hau Espainiako legearen mende dago, eta parte-hartzaileek, beste edozein jurisdikziori uko eginez, Iruñeko epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira, lehiaketatik sortu daitezkeen auzi edo eztabaida guztietan.

### **Oinarriak erregistratzea eta pribatutasun-politika**

Lehiaketa honen oinarri orokorrak Solera Asistencial-en webgunean kontsulta daitezke: [www.soleraasistencial.es](http://www.soleraasistencial.es), baita plantilla banaketa puntuetako lekuetan ere.

### **ONARPEN ADIERAZGARRIA ETA BAIMENA**

Ni, parte-hartzaile den hauraren guraso, ama edo tutorea, NIRE ONARPEN ADIERAZGARRIA ETA BAIMENA ematen dut, Solera Asistencial S.L.U-ri edo Solera Asistencial Taldeko beste enpresa batzuei, haurrak parte hartzen duen marrazki, argazki, bideo, ahots-bideo, material grafiko, etab. (aurrerantzean “irudiak”) edo horien zatiak modu berean erabiltzeko, lehiaketa hau sustatzeko helburuarekin, betiere ohore-eskubideari, moralari eta/edo ordenamendu publikoko arauetara kalte egin diezaiokeen erabilera edo aplikazioetatik salbu.

### **Datu pertsonalen erabilerari buruzko informazioa**

Jakinazten dut honako hau:

Datu pertsonalak Solera Asistencial S.L.U-k jasoko eta tratatuko ditu, helbidea C/ Monasterio de Irache 76, San Juan, Iruña, datuen tratamenduko arduradun gisa, baimenaren oinarrian, jarduera dokumentatzeko eta barnean eta kanpoan, edozein kanal eta euskarri bidez, zabaltzeko helburuarekin. Datuak eta irudiak gordeko dira gutxienez lehiaketa garatzen den bitartean eta erreklamazioak ebazteko legeak ezarritako denboran. Datuak eta irudiak Solera Fundazioari, Seresgerna S.A-ri edo lehiaketan parte hartzen duen beste edozein zentro edo erakunderi helarazi ahal izango zaizkie, lehiaketa honetako xedapenak betetzeko eta komunikazio publizitario, newsletter eta komertzialak egiteko.

Gainera, adierazki baimena ematen dut, nire datu pertsonalak eta parte-hartzen duen haurrenak Solera Asistencial S.L-tik helaraz daitezkeen lehiaketa honen garapenerako, oinarrietan adierazitako moduan.

Era berean, adierazki baimena ematen dut Solera Asistencial S.L.U-k datu hauek Solera Asistencial Taldeko beste enpresei helarazi ahal izateko, lehiaketa hau modu egokian kudeatzeko, baita nire datuak eta haurrena Solera Asistencial-en fitxategi batean sartzeko, produktu, eskaintza eta promozioei buruzko informazioa jasotzeko, eta horiek Solera Asistencial Taldeko beste entitate batzuei helarazi ahal izateko helburu berarekin. Mezularitza hau kanal arrunt edo elektroniko bidez egin daiteke. Hau guztia LO15/1999 abenduaren 13ko legeak ezartzen duen moduan.

Era berean, jakin eta onartzen dut lehiaketaren oinarrietan ezarritako baldintzak, eta horietatik sortzen diren eskubideak eta betebeharrak.

# Martxoa

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

# Maiatza






A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

# Apirila

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

# Ekaina

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

-  Hasi mazarzen!
-  La Morea Merkataritza Zentroko standetan mazarzera!
-  Mazarzien jasotzea
-  Irabazleen argitalpena Solera webgunean
-  Sari banaketa La Morean

## Antolatzailea



## Kolaboratzaileak

